

## XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4306

*AGINDUA, 2012ko irailaren 20koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Euskal Autonomia erkidegoko udaltzaingoei aplika dakizkiekeen kondekorazioak eta sariak diseinatu, erabili eta erakusteari buruzkoa.*

Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainen kidegoei aplika dakiekeen kondekorazio- eta sari-erregimenari buruzko urtarilaren 26ko 27/2010 Dekretuaren bidez (EHAA, 22. zk., 2010eko otsailaren 3koa) arautu ziren Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen III. tituluko V. kapituluaren aurreikusitako zerbitzu-egintzaren deklarazioak dituen eraginak; hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoetako funtzionarioei loturik, baita berorien ibilbide profesionalean zehar egindako polizia-lanaren aitorpena ere, eta ezarri zituen Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoetako funtzionarioek jaso ditzaketan kondekorazioak eta sariak.

Dekretu horretan xedatutakoaren ondorioz, eta «Jaurlaritzari» buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26.4.a artikulua esleitutako ahalaz baliatuta, jarraian ezarriko dira polizia-lanarengatiko dominaren -emateko zerbitzu-egintzaren deklarazioarekin loturik baitago- eta polizia-zerbitzuarengatiko diplomaren diseinua eta ezaugarriak. Gainera, domina eta gainerako kondekorazioak eta sariak erabili eta erakusteko arauak jarriko dira, eta udalei ahalmena emango zaie, egokitzen baldin badute, zorion-oharren diseinua eta ezaugarriak finkatu eta erabilera arautzeko.

Horregatik guztiagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoko Koordinatzeko Batzordeak horren berri niri eman ondoren

### XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Polizia-lanarengatiko dominaren elementuak eta diseinua.

1.– Polizia-lanarengatiko domina, Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainen kidegoei aplika dakiekeen kondekorazio- eta sari-erregimenari buruzko urtarilaren 26ko 27/2010 Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusita baitago, elementu hauek osatzen dute: Domina, xingola, orratza eta miniatura.

2.– Polizia-lanarengatiko dominaren eta bera osatzen duten elementuen diseinua eta ezaugarriak  
I. Eranskinean ezarritakoak dira.

2. artikulua.– Polizia-lanarengatiko domina erabiltzea eta erakustea.

1.– Polizia-lanarengatiko domina uniformean eraman edo jarri ahalko da soilik bera emateko ekitaldian eta tokiko agintariak baimendutako gainerako aldietan. Kasu horietan gala-uniformean jarriko da, bularraren ezkerreko aldean, sakelaren goiko ertzaren edo uniformeko logoaren gainetik.

Funtzionarioak polizia-lanarengatiko domina bat baino gehiago izanez gero, ezkerralde horretan jarriko dira.

2.– Orratza gala-uniformean eraman edo jarri ahalko da tokiko agintariak polizia-lanarengatiko domina uniforme horretan jartzea edo eramatea baimentzen ez duten aldietan, eta bularraren ezkerreko aldean kokatuko da, sakelaren goiko ertzaren edo uniformeko logoaren gainetik. Ekitaldi

ofizialetan edo garrantzi berezikoetan, eta gala-trajerik eduki ezean, laneko uniformearen eraman edo jarri ahalko dira.

Funtzionarioak polizia-lanarengatiko domina bat baino gehiago izanez gero, orratz guztiak batuta edo elkarri lotuta egongo dira ezkerreko alde horretan.

3.– Polizia-lanarengatiko dominaren miniatura edozein janzkiren hegalean edo botoi-zuloan eraman edo jarri ahalko da, baina ez da ez galako uniformea ez laneko uniformea izango.

Funtzionarioak polizia-lanarengatiko domina bat baino gehiago izanez gero, ezin izango du miniatura bat baino gehiago eraman.

3. artikulua.– Polizia-lanarengatiko diplomaren diseinua eta ezaugarriak.

1.– Polizia-zerbitzuarengatiko diplomaren diseinua eta ezaugarriak, bereizgarri zuridun eta bereizgarri gorridun modalitateetan, II. eranskinean ezarritakoak dira.

2.– Polizia-zerbitzuarengatiko diplomak, bereizgarri zuridun diplomaren eta bereizgarri gorridun diplomaren modalitateetan, diplomaren modalitateari dagokion orratza eramango du, eta horren diseinua eta ezaugarri teknikoak II. eranskinean aipatutakoak izango dira.

4. artikulua.– Polizia-zerbitzuarengatiko diploma erabiltzea eta erakustea.

1.– Orratza galako zein laneko uniformeetan eraman ahalko da; baina, non jarriko den kontuan hartuta, bere tamainan eta materialean desberdintasunak izango dira. Hori horrela, orratzen diseinuan jasotzen den bezala, galako uniformearen eramango dena 30 milimetrokoa izango da, eta bakarrik oihalezkoa. Laneko uniformearen eramango dena, ordea, 23 milimetrokoa izango da eta oihalezkoa edo esmaltezkola izan daiteke.

Polizia-zerbitzuarengatiko bereizgarri gorridun diploma lortu ondoren, uniformearen bakarrik bere orratza eraman edo jarri ahalko da.

2.– Diplomaren orratza galako uniformearen eramaten denean, eta funtzionarioak aldi berean uniforme horretan polizia-lanarengatiko domina edo dominak eramanez gero; hala badagokio, diplomaren orratza dominaren goiko aldean jarriko da eta, domina batzuk eramanez gero, erdialdean, horien gainetik.

Diplomaren orratza galako uniformearen eramaten denean, eta aldi berean funtzionarioak uniforme horretan polizia-lanarengatiko dominari dagokion orratza jarrita baldin badu, diplomaren orratza dominari dagokion orratzaren ezkerrean jarriko da edo jasotako dominei dagozkien orratz batuen edo elkarri loturikoen ezkerrean.

3.– Diplomaren orratza laneko uniformearen eramaten denean, ezkerreko aldean jarriko da eta; funtzionarioak polizia-lanarengatiko domina baldin badu, diplomaren orratza dominaren orratzaren ezkerrean jarriko da edo jasotako dominei dagozkien orratz batuen edo elkarri loturikoen ezkerrean.

5. artikulua.– Zorion-oharren diseinua eta ezaugarriak.

Udalei dagokie meritudun ekintzengatik egiten diren zorion-oharren diseinua eta ezaugarri teknikoak zehaztea, betiere dominak emateko ezarritako baldintzak betetzen ez badira.

6. artikulua.— Erabiltzeko eta zaintzeko arau gehigarriak.

1.— Arau honetan aurreikusitako kondekorazio edo sariren bat eskuratu duten funtzionarioek bakarrik erabili edo erakutsi ahalko dute beren udaltzaingoari aplikatu dakiokeen legedian ezarritako kasuetan eta xedeetarako, baina erakundekoak ez diren hirugarrenek ezin izango dute erabili.

2.— Udaltzaingoetako funtzionarioek dauzkaten kondekorazioak eta sariak arduraz zaindu eta gordetzeko betebeharra dute, eta guztiz debekatuta dago kondekorazioen edo sarien forma edo ezaugarriak aldatzeko edozein manipulazio egitea.

3.— Arau honetan aurreikusitakoez bestelako kondekorazioak edo sariak erabiltzea edo erakustea bakarrik onartuko da udaltzaingoko langileei aplikatu dakiekeen legedian aurreikusitako kasuetan eta xedeetarako eta legedi horretan adierazitako moduan.

7. artikulua.— Domina-ematea.

Polizia-lanarengatiko domina emateko ekitaldia ahalik eta osperik handienaz burutuko da eta, aldi berean, udaltzaingoarentzat esanahi berezia duten egunetan egiten ahaleginduko da, baldin eta presa- edo egokiera-arrazoiengatik beste momentu batean egitea gomendagarria ez bada.

#### AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.


Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 20a.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioako sailburua,  
IDOIA MENDIA CUEVA.


**I. ERANSKINA****POLIZIA ZERBITZUARENGATIKO DOMINAREN DISEINUA ETA EZAUGARRIAK****I.- ERAKETAREN ESKEMA**

Domina elementu hauek osatzen dute: Domina, xingola, orratza eta miniatura.

(NEURRIAK MILIMETROTAN)

**DOMINA****XINGOLA**

Escala 1:1

**ORRATZA****MINIATURA**

**Ezkutu korporatiboa:**

CUATRICROMIA  
100% cian  
100% amarillo  
PANTONE 347 C  
PANTONE 355 U



CUATRICROMIA  
70% cian  
20% magenta  
PANTONE 292 C  
PANTONE 291 U



CUATRICROMIA  
100% magenta  
100% amarillo  
PANTONE 485 C  
PANTONE Warm Red U



CUATRICROMIA  
20% cian  
20% magenta  
70% amarillo  
PANTONE 871 C  
PANTONE 871 U



CUATRICROMIA  
50% cian  
70% magenta  
100% amarillo  
PANTONE 470 C  
PANTONE 471 U



CUATRICROMIA  
65% negro  
PANTONE COOL GRAY 9 C (\*)  
PANTONE COOL GRAY 9 U (\*)



CUATRICROMIA  
25% negro  
PANTONE 877 C  
PANTONE 877 U



CUATRICROMIA  
100% cian  
70% magenta  
20% amarillo  
PANTONE 301 C  
PANTONE 301 U



CUATRICROMIA  
100% negro  
NEGRO

**Domina:****II.- DESKRIBAPENA****II.1.- DOMINA**

Dominaren aurrealdean bederatzi adar-puntako eguzki-lore bat egongo da, 17,5 mm-ko erradiokoa, 12,4 mm-ko erradioa duen lorea erdian jarrita dagoela, eta horren gainean Euskadiko ezkutu korporatiboa ipiniko da (318/99 Dekretua, abuztuaren 31koa), tamaina txikiagoan, 5 mm-ko erradioa duen zirkuluak mugatuta, eta hori guztia hainbat geruzatan eratuta. Beheko aldean, ertzean zehar UDALTZAINGOA hitza duen banda dago, erdian jarrita.

Atzealdea erabat laua izango da, hitzik gabekoa, eta domina xingola bidez esekitzeko begidun torlojua edo zirindola izango du.

**II.2.- XINGOLA**

Xingola esekita eraman behar da eta 30 mm-ko zabalera izango du eta luzetarako bost bandatan banatuta egongo da, hiru koloretan, eta erdiko kolorea zuria eta 10 mm-koa izango da. Horren bi aldeetan bi banda egongo dira, eta erditik hurbilen dagoen kolorea berdea izango da eta kanpoko kolorea gorria. Biak 5 mm-koak izango dira. Xingola distirazkoa izango da, ur-markak izango dituen, eta bere luzera ere 35 milimetrokoa izango da, belarria kontuan hartu gabe.





Xingola urre koloreko belarri bati loturik egongo da, xingola barrutik igarotzea ahalbidetuko baitu, eta behealdean ixteko orratza izango du, uniformean finkatu ahal izateko.

### **II.3.– ORRATZA**

Dominaren jabetza erakusten duen elementua da. Adierazitako koloreak dituen xingola bat izango du, 30 milimetroko luzerakoa eta 10 milimetroko zabalerakoa. Urre koloreko metalezko armazoi baten gainean egongo da muntatuta eta metal horretan egindako bi alboko barrak osatuko dute markoa. Barra bakoitzak bi milimetroko zabalera izango du eta hamabi milimetroko luzera, eta uniformean lotzeko atzealdean bi pin izango dituzte.

### **II.4.– MINIATURA**

Polizia-lanarengatiko dominaren kopia da, eskalan egindakoa, intsignia gisa. Eusteko daukan sistemari esker edozein janzkiren hegalean edo botoi-zuloan jar daiteke.

**II. ERANSKINA****POLIZIA-LANARENGATIKO DIPLOMAREN DISEINUA ETA EZAUGARRIAK****I.- POLIZIA-LANARENGATIKO DIPLOMAREKIN BATERA DOAN ORRATZA****I.1.- BEREIZGARRI ZURIDUN DIPLOMA****Galako uniformean jartzeko orratza (Oihala)****Laneko uniformean jartzeko orratza (oihala-esmalteztatua)****I.2.- BEREIZGARRI GORRIDUN DIPLOMA****Galako uniformean jartzeko orratza (Oihala)****Laneko uniformean jartzeko orratza (oihala-esmalteztatua)****2:1 eskala**

KUATRIKROMIA  
100% magenta  
100% horia

PANTONE 485 C  
PANTONE Warm Red U

2012ko irailaren 27a, osteguna

**II.- POLIZIA-ZERBITZUARENGATIKO DIPLOMA****II.1.- ERAKETAREN ESKEMA****Diplomaren neurriak: DIN A4****Orientazioa: Horizontala.**KUATRIKROMIA  
100% ziana  
100% horiaPANTONE 347 C  
PANTONE 355 UKUATRIKROMIA  
100% magenta  
100% horiaPANTONE 485 C  
PANTONE Warm Red U

PANTONE 467 C



PANTONE 7502 C



PANTONE 7499 C

**POLIZIA-ZERBITZUARENGATIKO DIPLOMA  
DIPLOMA AL SERVICIO POLICIAL**


*Alkatearen Dekretuz, Udaltzaingoa  
20 urteko benetako zerbitzua burutu  
ondoren, **Polizia-zerbitzuarengatiko  
bereizgarri zuridun Diploma** eman  
zaio*

*Por Decreto del Alcalde, se concede  
el **Diploma al Servicio Policial con  
distintivo blanco**, tras 20 años de  
servicio efectivo en la Policía Local.*

**D./Dña.** \_\_\_\_\_ **Jaunari/Andreari.****N.º Prof.:** \_\_\_\_\_ **Lanb. Zk.**

Sinadura/Firma

\_\_\_\_\_ ko alkatea – Alcalde de \_\_\_\_\_



\_\_\_\_\_(e)n \_\_\_\_\_(e)ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)an \_\_\_\_\_, a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_

27/2010 DEKRETUA, urtarrilaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainen kidegoei aplikatu dakiekeen kondecorazio- eta sari-erregimenari buruzkoa.

DECRETO 27/2010, de 26 de enero, sobre el régimen de condecoraciones y distinciones aplicable a los Cuerpos de Policía del País Vasco.

## POLIZIA-ZERBITZUARENGATIKO DIPLOMA DIPLOMA AL SERVICIO POLICIAL

Alkatearen Dekretuz, Udaltzaingoan  
30 urteko benetako zerbitzua burutu  
ondoren, **Polizia-zerbitzuarengatiko  
bereizgarri gorridun Diploma** eman  
zaio

Por Decreto del Alcalde, se concede  
el **Diploma al Servicio Policial con  
distintivo rojo**, tras 30 años de servicio  
efectivo en la Policía Local.

D./Dña. \_\_\_\_\_ Jaunari/Andreari.



N.º Prof.: \_\_\_\_\_ Lanb. Zk.

Sinadura/Firma

ko alkatea – Alcalde de

\_\_\_\_\_ (e)n \_\_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an \_\_\_\_\_, a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_

27/2010 DEKRETUA, urtarilaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainen kidegoei aplikatu dakiekeen kondecorazio- eta sari-erregimenari buruzkoa.

DECRETO 27/2010, de 26 de enero, sobre el régimen de condecoraciones y distinciones aplicable a los Cuerpos de Policía del País Vasco.

### II.2.– DESKRIBAPENA

#### A) DISEINUA

Diploma inprimatuko den paperaren orientazioa horizontala izango da. DIN A4 tamainakoa (210 mm x 297 mm) eta 300 gramokoa. Distiratsua.

#### B) DIPLOMAREN HONDOA

Diplomaren hondoaren kolorea zuria izango da eta eguzki-lore irudi bat izango du, diseinu naturalistan egindakoa, ur-markaren gisakoa. Diplomaren erdian egongo da kokatuta, Pantone 447 C, Pantone 7502 C eta Pantone 7499 C marroi-tonuetan, irudiaren gardentasun-maila % 75 murriztuta dagoela.

#### C) GOIKO ALDEA

Diploma-motaren izenburua edo identifikazioa ele bitan, letra larriz eta lodiz, **"POLIZIA-ZERBITZUARENGATIKO DIPLOMA / DIPLOMA AL SERVICIO POLICIAL"**.

#### D) ERDIKO ALDEA

Diploma eman dela adierazteko testua, ele bitan eta bi zutabetan maketatuta (ezkerrean euskaraz, eskuinean gaztelaniaz). Letraren tipografia *"calibri"* izango da, eta letra lodiz hau nabarmenduko da: ***"Polizia-zerbitzuarengatiko bereizgarri zuridun/gorridun diploma"***.

Diploma jasoko duen agentearen izena, letra lodiz, erdian jarrita eta ele bitan.

Lanbide-zenbakia letra lodiz, erdian jarrita eta ele bitan.

Alkatearen sinadura, Udaltzaingoaren arduradun gorena den aldetik. Sinaduraren oinean bere udalerrria, erdialdean jarrita eta ele bitan.

Erdiko aldeko behealdean, eskuinean, begizta beten irudia agertuko da, beltzez inguratuta eta zeharka jarrita. Hondo zuria izango du bereizgarri zuridun diploma bada (20 urteko benetako zerbitzua burutu ondoren) eta hondo gorria bereizgarri gorridun diploma bada (30 urteko benetako zerbitzua burutu ondoren)

Erdiko aldeko behealdean, ezkerrean, Udaltzaingoaren udalaren koloretako ezkutua agertuko da.

#### **E) BEHEKO ALDEA**

Diploma eman den data, ele bitan, bi zutabetan maketatuta (ezkerrean euskaraz, eskuinean gaztelaniaz), diploma emateko testuaren zutabeen proportzio berberak mantenduta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoentzako kondekorazioen eta sarien arauari buruzko zehaztapena, ele bitan.

27/2010 DEKRETUA, urtarrilaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzainen kidegoei aplika dakiekeen kondekorazio- eta sari-erregimenari buruzkoa.

DECRETO 27/2010, de 26 de enero, sobre el régimen de condecoraciones y distinciones aplicable a los Cuerpos de Policía del País Vasco.

#### **F) GOIKO EZKER-ERPINA ETA BEHEKO ESKUIN-ERPINA**

Apaingarri gisa bi angelu zuzen agertuko dira, tamaina desberdinetakoak. Kanpoko Pantone 485 C gorri kolorekoa eta handiagoa. Barrukoa Pantone 347 C berde kolorekoa eta nabarmen txikiagoa.